TXINPARTAK

20. ALEA *2010 UDA*

BURDINOLAko berriak
Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos del Museo del Hierro de Legazpi

LEHENGO AZTIRI, BURDINOLAREN HURRENGO LIBURUA

Arg: Jose Luis Ugarte

LEGAZPIKO MITOLOGIA IKERTZEN.....3
"VERBA VOLANT SCRIPTA MANENT"…….....9
ENTREVISTA CON IÑAKI BELDARRAIN.....12
LA CASA CONSISTORIAL LEGAZPIARRA…….....16

EDITORIALA

Urtero urtero, udaberri aldean, Burdinola elkartearen urteko ekintzak zehaztu behar izaten ditugu erakunde desberdinetan aurkeztu ahal izateko eta diru-laguntzak eskatzeko. Ez da momentu gozoa izaten, izan ere, gure elkarteak urtean zehar zer ahalegin egin dezaken neurtzeko garaia izaten baita eta ez dugu edozein gauza adierazi nahi izaten, ez dugulako gure buruarekin gezurretan ibili nahi eta, ez hori bakarrik, urte amaierarako bete egin behar direlako bertan azaldutakoak. Helburu handiak markatu nahi izaten ditugu, baina, indarrak ikusita, _azkenean egokitu egin behar_. Beste aldetik, ordea, ariketa garrantzitsua da elkartearentzat, gure lan-ildoak finkatzeko balio izaten digulako. Aurten, azkenean, hauek dira finkatu ditugunak: 1. Legazpi eta Goierriko etnografia eta hizkera biltzea; 2. Garoaren gaineko dokumentala; 3. Aztiri auzoaren gaineko ikerketa lana; 4. Legazpiko ahozko ondarearen bilketa; 5. Ondarea zaintzeko, berreskuratzeko eta ezagutarazteko ekimenak; 6. Legazpi eta Euskal Herriko zepadien ikerketa; 7. Jendaurreko ekitaldiak (Aizkorrin Barrena mendi-martxa; San Joan bezperako armen alardea; San Migeleko kontzertuak; Ignacio Agirreren argazki erakusketa; Hitzaldiak; Diapositiba emanaldiak; Ibilaldiak); 8. Argitalpenak; 9. Kudeaketa-lanak. Azkenerako, kostata baina zerrenda osatu dugu. Orain betetzea falta zaigu, zailena. Jakin ezazu, bazkide hori, zure laguntza gustura hartuko dugula.

Como todos los años hacia la primavera, la Asociación Burdinola debe de redactar la lista de los proyectos que va llevar a cabo durante el año para presentarla a las diferentes instituciones y solicitar subvenciones. No suele ser tarea fácil, porque supone prever el trabajo que la asociación, a través de sus socios y socias y desinteresadamente, puede realizar a lo largo del año. Sin embargo, se trata de un ejercicio sano y muy valioso, _que sirve para medir nuestras fuerzas y encauzarlas hacia los objetivos que dan sentido a nuestra asociación_. Este año hemos definido nueve proyectos, a saber: 1. Recogida de léxico y etnografía en Legazpi y en el Goierri; 2. Documental relacionado con el helecho; 3. Estudio del barrio de Aztiri; 4. Proyecto Ahotsak; 5. Iniciativas para preservar, recuperar y dar a conocer el patrimonio cultural; 6. Estudio de los zepadis de Legazpi y de Euskal Herria; 7. Actividades divulgativas (marcha montañera Aizkorrin Barrena; alarde de armas de San Juan; conciertos de San Miguel; exposición fotográfica de Ignacio Agirre; conferencias; proyección de diapositivas; excursiones); 8. Publicaciones; 9. Labores de gestión. Ahora nos falta lo más difícil, ejecutarlos.

BURDINOLA ELKARTEA
Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
Tel: 943034071 burdinolaelkartea@euskalnet.net

LEGAZPIKO MITOLOGIA IKERTZEN
Metodologia ohar batzuk

Oraindik garaia ailegatu ez bada ere, gero eta gutxiago falta da egun batean Legazpiko mitologiari buruzko lan sistematiko bat egiteko[1]. Lan honetan, Legazpi bailaran jasotako mito eta ipuin denak bilduko lirateke, batetik. Bestetik, jasotako materialaren azterketa egingo litzateke. Inoiz ikerleren bat erronka honi aurre egiten saiatzen bada, gogoan hartu beharreko ohar batzuk izango ditu, eskuetan duen iturri ezberdinetako materiala zuzen

Ikuspegi orokorra eta Legazpiko paradoxa

Goierri mitoen lurraldea izan denaren ikuspegia dago. Ez da harritzekoa, Azkue eta Barandiaranek mito eta ipuin asko jaso zuten Goierrin, batez ere XX mendearen lehen erdian. Baina XX mendearen bigarren erdian ere, Goierriko aho literaturak, kontakizunaren formatuan, asko eta asko eman du. Eta beharbada, bigarren erdi honetako gailurra Zegaman Xabier Azurmendik jasotako kontakizun bilduma da, "Atzoko Zegama" izenburupean libururatua.

Eta zer dugu Legazpin? Legazpin mitologiaren gainean luzaroan izan den ikuspegia nahikoa ezkorra izan da: klasikoen bilketetan ez dela Legazpi izena askotan ageri, eta bertako mitologiak ondoko herrietakoen antzerakoa izan behar duela[2]. Lehen esaldiarekin ados nago, paradoxa ematen duen arren. Barandiaran eta Azkueren izenak gogoan baditugu, Legazpin ezer handirik ez zutela jaso ohartuko gara. Baina zergatik? Zer jasorik ez zegoelako ala bertan lan egin ez zutelako? Bigarren esaldia arriskutsua da: Legazpiko mitologiak ondoko herrietakoen antzerakoa izan behar duela.

Legazpin bilketa lan gutxi egin bazen, nondik ondoriozta zitekeen ondoko herrietakoen antzerakoa edo desberdina zela? Gainera, eta hemen dago arrisku gune bat, Legazpi mugako herria da. Bertako euskara eta kultura zaharrean murgiltzen garen bakoitzean, zalantzarik gabea da Legazpi erabat goierritarra dela, bai hizkeraz eta bai kulturaz. Baina era berean, muga herria da. Iparraldean Urretxu-Zumarraga unibertsoa dauka, eta eremu berezi honetan Goierri eta Urola erdiko hizkera eta kultura nahasi egiten dira.

Mendebaldean berriz Oñati dauka, eta hau mendebaldeko euskalkiaren (bizkaieraren) lurraldea da. Hegoaldean, geroz eta ezagunagoa (kultura eta euskara aldetik) bihurtzen ari zaigun Araba dugu. Gauzak horrela badira, ez al da ondorio azkarregia bigarren esaldi hori? Ba bai. Baina gero adieraziko dugun bezala, egia da ordea. Goazen aurrera hortaz.

Uste baino zabalagoa

Legazpin egin diren mitologia bilketetan, Aketegiko Dama (Mari) eta jentilak agertu dira[3]. Hau gauza normala da, gure inguruko herrietan ere mitologia zabal baten jabe direlako izaki bi hauek. Baina gehiago ere bada, sorginak, lamiak eta Joanito Txistu ere agertu dira, besteak beste[4]. Horretaz gainera, ipuinak ere baditugu, "Peru eta Mari" bezalakoak[5]. Eta eremua osatzeko, ipuin hagiografikoak ere baditugu, hau da, santuen ipuinak[6]. Azken bi hauetaz gero ere zeozer esango dugu. Orain arte ikusi dugunarekin honako ondorio hauek izan ditzakegu:

- Legazpiko mitologia uste zena baino zabalagoa da. Gure ondoko herrietakoaren adinakoa bai behintzat.
- Beraz, Azkue edo Barandiaranek jaso ez bazuten Legazpikoa, Legazpin aritu ez zirelako izango da, eta ez bertan zer jasorik ez zelako.
- Legazpiko mitologiaren gehiengoa, oso berandu jasoa izan da. Batez ere 1980 hamarkadatik aurrera. Horrela hurrengo puntuan aztertuko dugun *galera-faktorea* gogoan izan behar.

Galera eta "folklore-arkeologia"

Ez da zalantzarik, XX mendean zehar, hamarkadaz hamarkada mitologia galdu egin dela. Transmisioaren galera etengabea izan da, baina ez nuke esango konstantea ere izan denik. Hau da, belaunaldi batetik hurrengora galdu den kopurua ez da bera izan. Badakit oso zaila dela gauza hauek neurtzea, baina alderaketa diakroniko bat egiten saiatuko gara. Eta hemen Zegamako kasua aitatuko da. Gorago esandako "Atzoko Zegama" lana, 1980 inguruko grabaketaz hornitua dago[7].

Bertan agertzen ziren berriemaileak 1890-1910 artekoak ziren, gehienbat. Guk 2004-2005 urteetan, (hortaz mende laurden geroago), ia 50 grabaketa egin genituen Zegaman, batez ere 1915-1935 artean jaiotako jendeari. Ba (azterketa pertsonalizatua beharko luketen)


Aketegi

Anboto

salbuespen oso jakinak kenduta, mitologia dena, (dena!) desagertu egin da. Duela mende laurden aurki zitekeenaren %10 inguru bakarrik aurkituko du orain dabilen ikerleak (eta aurki ezer ere ez). Non eta Zegaman!

Eta bestetik, gaur egun arte iritsi diren mito eta ipuinak *nola* iritsi diren ikusi behar da. Iritsi den apurra, oso desitxuratua heldu da. Batzutan pertsonaia falta da, bestetan pertsonaiak elkar nahastu egiten dira, bestetan kontakizuna koherentzia gabe uzten duten hutsuneak ageri dira. Orduan, iritsi diren izpi hauekin "folklore-arkeologia" egitea suertatuko zaio ikerleari[8]. Mito hauek berez nola izan zitezkeen pentsatu behar du. Nolanahi ere, zorionez, Azkue, Barandiaran eta beste askok jasotako bertsio osatuak baliagarriak dira gehienetan.

Ondoko eremuei lotuta

Eta orain dugun ikuspegiaz, hasierako bigarren esaldia ere baieztatu behar dugu: Legazpiko mitologiak ondoko herrietakoaren antza dauka. Azken mende laurdenean jaso denak horretarako bidea ematen du. Akaso ikuspegi hau 1979 urtean izatea arriskutsua izan zitekeen, baina 2010 urtean ez. Dena dela, badira hutsune batzuk. Esate baterako, hor dugu Tartaloren gaia. Zegaman Tartaloren mitologia jaso zuen Xabier Azurmendik bere liburuan. Legazpin ez da horrelakorik jaso.

Nola interpretatu behar da hau? Bi era ikusten dira. Bata, Legazpin ez dela Tartaloren mitologiarik izan. Bestea, Legazpin izan dela Tartaloren mitologia, baina ez dela jasotzerik izan. Beharbada, bere kontakizun kopurua mugatuagoa izan delako beste izaki batzuen ondoan, (eta puntu hauxe Zegamako lanean ere baieztatzen da, esate baterako, jentilen ziklo ugariekin alderatuz), ahozko literaturak indarra galdu duenean, ba beste pertsonaia eta ziklo mitologiko batzuk baino azkarrago desagertu dela Tartalorena.

Beste modu batean esanda, transmisio ahulagoa zukeela Tartaloren mitologiak. Baina Tartalorena adibide hutsa da. Gehiago ere izan daitezke, arrastorik utzi gabe guregana iritsi ez diren Legazpiko mitoak. Eta kasu hauetan, "foklore-arkeologia" ere ezinezkoa da, ikerleak zeri eutsirik ez duelako.

Ipuinak versus mitoak: Formatu ugaritasuna.

Biak, mitoa eta ipuina, aho literaturen formatu desberdinak dira. Mitoa eta ipuinaren arteko ezberdintasunaz batzutan teorizatu izan da. Bien arteko aldeaz arduratzea ez da hemengo helburua. Hala ere, ikerleak jakin behar du Legazpiko aho literaturak hainbat formatu hartzen dituela: mitoa, ipuina, kontakizuna... Horren ondoan, badira beste formatu batzuk, musikarekin lotuagoak: bertsoak eta kantuak[9].

Ipuin hagiografikoak

Ipuin hagiografikoak, santuak eta erlijio kristauaren pertsonaiak agertzen diren ipuinak dira. Normala den bezala, mende askotan kristau sinesmenak gurean indar handia izan duelako, eta herriaren alfabetizazioa ez delako azken belaunaldiak arte erabatekoa izan, ba sinesmen kristau horrek bere ahozkotasun bat lantzeko modua izan du gurean. Ahozkotasun hori, ipuin horiek, oso antzerakoak dira Euskal Herrian eta Europa mendebaldean. Hortaz, euskal tradizioaren barruan sartu behar al dira santu ipuinok?

Erantzuna baiezkoa ala ezezkoa izan, ipuin hauek ahozkotasunaren zati diren aldetik, gogoan izan behar ditu ikerleak. Edonola ere, ez da askotan erraza izaten ipuin hauek kronologikoki kokatzea. Izan ere, Brinkolan San Agustin santuaren gainean esaten direnak, berri-berriak izan behar dute, XIX mende bukaeran eta XX mendearen lehen erdian adieraziak, beti ere Brinkolako eliza egin eta ondokoak, 1886 urteaz geroagokoak[10].

Baina santu ipuin denak ez dira hain berriak. Izan ere, santuei buruzko kontakizunak, erdi aroan, apaiz, monastegi eta apezpiku guneetatik zabaldu ziren jende xehearengana, askotan haien botere egoerak justifikatzeko[11]. Eta horrek ipuin hauen zahartasuna baieztatzen du.

Metodologia eta bibliografia

Gure asmoa ohar batzuk kaleratzea izan da, besterik gabe. Oraindik Legazpiko mitologiaren azken-azkeneko apurrak jasotzerik badenez, mitologia honen *behin-betiko korpusa* egitea ezinezkoa da oraingoz. Horrela, lerro hauetatik atera daitezkeen ondorioak mugatuak behar dute, derrigor; oraindik pentsa ezin zitekeen kontu edo pertsonaiaren bat ager liteke.

Horrexegatik, ohar hauekin orain arteko arazo espezifiko batzuk aipatzera mugatu gara. Arazo hauetatik, gutxi batzuk, Legazpiko testuingurura mugatuko dira

Orhi

Auñamendi

Arg: Aitor Azpiazu

ezinbestean. Beste batzuk, berriz, beste herri batzutan ere erabilgarriak izango dira. Horrela, gure lana, zimendulana egitea izan da, nolabait labainkorrak izan daitezkeen gaietan sendotasuna aurkitzea.

Zalantza gabe, Legazpiko mitologiaren *behin-betiko lana* egingo den egunean, iturri denak banaka-banaka aztertu beharko dira, banakako kritika baten argitan ezarriz. Erabilitako bibliografia hauxe izan da:

ASKOREN ARTEAN (Hots taldea)

- 1984a. *Ipuin legazpiarrak*, in "*Hots*", 11 alea. Legazpi. Hots taldea.
- 1984b. *Julian Alustiza-rekin hizketan. Kontu zaharrak biltzen jakiteko lezioa*, in "*Hots*", 13 alea. Legazpi. Hots taldea.

AZPIAZU UGALDE, AITOR

- 2009. *Gipuzkoako hegoaldeko euskara. Brinkolan jasotako lexikoa eta etnografia gaiak*. Legazpi. Burdinola.

BEREZIARTUA, JOXE MANUEL (Erredakzioa)

- 2006. *Urola Garaia: Mende bat iruditan. Gure Nagusiak. Un homenaje a nuestros mayores*. Legazpi. Zum edizioak.

GARCIA CAMINO, IÑAKI

- 2002. *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal*. Bilbo. Bizkaiko foru aldundia.

LÉVI-STRAUSS, CLAUDE

- 2006. *Tristes trópicos*. Barcelona. Surcos 24 saila, Paidos. (Lehen edizioa: 1955).

UGARTE, JOSE LUIS & MADINABEITIA, TERE & UGALDE, MARIA JESUS

- 1999. *Brinkola gogoan, apunte historiko eta etnografikoak*. Donostia. Eusko ikaskuntza.

ZELAIA, IÑAKI (Koordinatzailea)

- 1979. *Legazpi*. Legazpi. Legazpiko udala.

Aitor Azpiazu

[1]Ikuspegi hau Goierriko beste edozein herritara ere eraman liteke. Eta era orokorrago batean, Euskal Herria osora ere bai. Izan ere, oraindik, XXI mende hasiera honetan ere, mito eta mito-aldaera berriak jaso daitezke, gure bazterretan. Baina hau, azkeneko olatua da, dagoeneko. Euskara etxean bakarrik ikasi dutenen belaunaldia joango den egunean, ahozko tradizio honen azken iturri jatorrak ere agortuko dira. Orduan, geratuko zaigun bakarra idatziz eta grabazioz jasotakoa izango da. Eta orduantxe hasi ahal izango da, eta ez aurretik, euskal mitologiaren benetako ikerketa sistematiko bat. Dena dela ere, galera honek ez du etsigarria izan behar: euskal ahozkotasun eta mitologiaren inguruan lan on asko egin da. Eta bestetik, sistematizazio horretan, pausu txiki baina garrantzitsuak eginda daude. Esate baterako, Barandiaranen "Mitología vasca" liburua dugu. Lan hau, sintesiaren maisu-lana izateaz gain, oraindik ere, euskal mitologiarako sarrera-bide egokiena da.

[2]Hitzez hitz: "Klasikoek bilduriko ipuin sortetan argi eta garbi *Legazpi herriaren izena aurkitzea oso zaila da*. Dena dela, haran osoak ingurutako sinesmen berak kontuan zituela pentsatu behar da. Eta ikuspegi honetatik Zegama, Zerain, Mutiloa... aipatzen direnean, Legazpiko sinesmenak ere aipatzen direla, alegia". (ZELAIA, I. 1979: 179).

[3]Jentilak: (UGARTE, J.L. & MADINABEITIA, T. & UGALDE, M.J. 1999: 220-221), (BEREZIARTUA, 2006: 55), (AZPIAZU, 2009: 232-233).../ Aketegiko Dama: (AZPIAZU, 2009: 45-47, 59)...

[4]Hauetako batzuk oraindik ere argitara eman gabeko grabaketetan ditugu.

[5]ASKOREN ARTEAN, 1984a: 18-21.

[6]AZPIAZU, 2009: 372-374.

[7]Eta horrela, 1980 hamarkadak ez zuen izan behar mitoak jasotzeko garai txarra. Izan ere, "Atzoko Zegama" hori salbuespena ez dela adierazteko, Juan Manuel Etxebarriaren "Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta Esaundak" lana ere badugu. Bi lanek, aldeak alde, antzekotasun handiak dituzte; ez litzateke txarra izango egunen batean bien arteko azterketa konparatiboa egitea. Baina hemen betikoa dator, gai zaharrak maite dituenarentzat, lehenagoko garaiak hobe. Horrela, Aztiri ikerleari 1984 urtean egindako elkarrizketa batean, "*orain 20 urte nahi adina kontulari on zeneuzkan*" dio. (ASKOREN ARTEAN, 1984b: 10.)./ Etnografoek duten beti atzera joateko nahi honen gainean, hitz ederrak esan zuen Leví-Strauss-ek. (LÉVI-STRAUSS, C. 2006: 51-52.).

[8]Antzerako zerbait egin beharrean izan gara: AZPIAZU, A. 2009: 468.

[9]Nolanahi ere, Goierri maialan, lehen formatuak jatorragoak dira. Izan ere, bertso eta kantuak, askotan Beterriko mundu eta euskararekin lotuak agertzen dira. (AZPIAZU, A. 2009: 463.).

[10]Eliza egin zenean, ez zekiten zein santuren izenean jarri. Azkenean, dataz ondo zetorkien bat aukeratu zen: San Agustin. (AZPIAZU, A. 2009: 372-374, 467.)./ Aukeraketa honek garbi utziko du, santu honen gainean Brinkolan jaso daitekeenak berandukoa izan behar duela. Eta bestetik adierazten du, ahozko tradizioa nola moldatzen den historiaren gorabeheretara.

[11]GARCIA CAMINO, I. 2002: 199.

Por la red



Características del "horno vasco" asociado a las "haizeolak": hornos de reducción de gran tamaño

X. ORUE-ETXEBARRIA, E. APELLANIZ, J. ARTARAZ, A. BASTERRETXEA, R. BERODIA, J.M. ELOSEGI, E. GALARZA, J.M. LASA, E. MADINA, J.M. MINTEGUI, K. TELLERIA

http://www.euskonewws.com/0524zbk/gaia52401es.html

En su número 524, de fecha 12-19/3/2010, la revista virtual Euskonews&Media publica el tercer trabajo de investigación que sobre el mundo de las "haizeolak" llevan a cabo Xabier Orue-Etxebarria y su equipo de colaboradores en el País Vasco.

En esta ocasión, lo publicado, es una síntesis de todos los datos de campo recogidos a lo largo de seis años de trabajo.

Dada la extensión del material publicado hemos recogido parte del mismo en nuestras páginas y, por su interés, concomitamos a todos aquellos interesados a que visiten esta página:

"Introducción

Los resultados que presentamos en este estudio, son una síntesis de todos los datos de campo recogidos a lo largo de varios años de trabajo, así como también de los análisis estratigráfico-sedimentológicos, mineralógicos y petrológicos llevados a cabo en los Dptos. de Estratigrafía y Paleontología, y de Mineralogía y Petrología de la UPV/EHU, realizados sobre diferentes tipos de escorias, muestras de la pared, etc., y de la información obtenida en las primeras excavaciones.

Trabajos de campo y antecedentes

En los últimos seis años de investigación y después de haber realizado cerca de 200 jornadas de campo, hemos acumulado una considerable información acerca de las características de este tipo de estructuras o cubetas de tecnología prehidráulica.

Dentro de los trabajos realizados acerca de estos hornos, hay que mencionar también los efectuados acerca de la composición, características, etc., de los diferentes tipos de escorias y muestras del revestimiento interno, realizados sobre restos recogidos en Galdakao (GIL *et al.*, 2008).

Localización de los hornos

Después de la localización de más de cien hornos, hemos comprobado que los lugares donde realmente se ubican es en las laderas, nunca en zonas llanas ni de demasiada pendiente, encontrándose tanto en zonas altas como en partes medias o incluso en las partes bajas de los valles.

Las características que definen la localización de estas "haizeolak", además de su ubicación en zonas de ladera, a lo que hacíamos referencia anteriormente, son las siguientes:

a) Según hemos podido comprobar en la mayor parte de los casos, en contra de lo manifestado por otras personas que han escrito acerca de estas ferrerías, se encuentran cerca de los yacimientos de hierro, pequeños o grandes, superficiales o explotados en profundidad. Es decir, lo que condiciona, en nuestra opinión, la localización de estas ferrerías de ladera es la existencia de hierro y no la de madera, que probablemente llegaría de zonas próximas en forma de carbón vegetal. Además, hemos podido comprobar que, cuanto más abundante es el hierro en una zona, mayor es la concentración de "haizeolak" encontradas en los alrededores.

b) Otro condicionante para la instalación de estas ferrerías parece ser la existencia de un pequeño curso de agua en las cercanías, normalmente a una distancia menor de cien metros y muchas veces a pocos metros del lugar en el que se encuentran las cubetas. Aunque es suficiente con una pequeña cantidad de agua, también se encuentran cerca de ríos más caudalosos, y, en algunos casos, próximas a cauces que, aparentemente, solo disponen de agua en las épocas de lluvia. Esto último no sabemos si es realmente así o, como hemos comprobado en algunos casos, se trata de cursos de agua cuyo trazado ha sido alterado por obras realizadas o por un desvío natural consecuencia de la erosión a lo largo del tiempo. El hecho de encontrarse cerca de un cauce con régimen de agua intermitente, quizás también podría explicarse considerando que la obtención del hierro sería, a veces, un trabajo "extra", que se realizaba cuando ya se habían terminado las principales faenas del campo, es decir desde otoño a primavera, coincidiendo con las épocas de lluvias. En algunas ocasiones, también aparecen cerca de zonas cenagosas o pantanosas ("zingirak") o de depresiones con agua. En nuestra opinión, utilizarían esta agua para limpiar el mineral de hierro triturado, así como también para mojar la mezcla de arcilla y arena con la que revestían las paredes internas de los hornos.

c) Otro de los factores que parece influir en la situación que ocupan estas construcciones es su orientación respecto a los vientos dominantes. Más del 90% de las "jentilolak" encontradas se disponen con la abertura orientada hacia el norte o el noroeste. Son muy pocas las que presentan la abertura hacia otras orientaciones, no sabemos si condicionadas por la existencia de hierro en ese lugar o si, a pesar de su aparente inadecuada orientación, existían determinadas corrientes que favorecían la combustión.

Arg.: Mikel Osoz

La fotografía corresponde al calero de Eguzkitza. Se encuentra emplazado junto al camino que sube a los caseríos de Lakiola. Lo limpió el equipo de limpieza de Burdinola el 21 de octubre de 1997.

Se trata de un horno que posee las características de una haizeola medieval, por *"la existencia de un canal, justo debajo de la apertura frontal, en comunicación con el crisol"* según los autores del artículo.

Características del "horno vasco"

Al no haber encontrado descritos hasta ahora hornos de estas características en trabajos relacionados al ámbito más cercano, ni en otros que hacen referencia a hornos medievales de otras zonas de Europa, proponemos llamarles formalmente "horno vasco", por ser el País Vasco el lugar donde se han caracterizado o definido por primera vez, con independencia de que su distribución pueda extenderse más allá de los límites del área de influencia cultural vasca. Se trata de hornos de planta circular, en los que lo que más llama la atención es su tamaño, con una altura que alcanza normalmente unos cuatro metros, aunque hay algunos que llegan a tener alrededor de cinco metros. Según se puede comprobar en algunos que todavía conservan la pared original en la parte delantera, lugar donde se encuentra la abertura, estas cavidades corresponden a excavaciones realizadas en zonas de ladera, de tal modo que el horno quedaba rodeado por todas partes por el sustrato en el que ha sido excavado.

De todos modos, hay que decir que también se han citado unos pocos hornos de tamaño mucho más pequeño, menos de un metro de altura, encontrados en las cercanías de los escoriales, pero de los que todavía no sabemos, con seguridad, su edad ni cual era su función.

El diámetro máximo suele estar comprendido, normalmente, entre tres y tres metros y medio, aunque algunos se acercan a los cuatro metros. Esta máxima dimensión no se da en la base, sino que suele estar a unos 70 cm. del fondo. En la parte inferior, el diámetro suele ser, aproximadamente, un metro menor, dando lugar a una estructura semejante al "crisol" de los hornos modernos. Desde la parte más ancha hacia arriba el horno se va estrechando, dando una forma troncocónica periforme. En algunas ocasiones se puede observar, en la parte más alta, una zona con piedras o fragmentos de la pared con escorias de hierro que, probablemente, se utilizaron para reparar problemas de deterioro. La parte anterior suele estar reforzada de una pared de piedras, normalmente areniscas. El grosor de esta parte reforzada suele ser de un metro y medio aproximadamente, quedando el resto del horno incrustado en el sustrato.

¿Hornos de reducción del hierro o caleros?

Hasta ahora, tanto las personas que habitan en las zonas donde se encuentran estas estructuras, como los arqueólogos estudiosos de la época medieval, consideran que estas estructuras, que fueron interpretadas por primera vez como "haizeolak" por ORUE-ETXEBARRIA *et al.* (2008a), corresponden a antiguos caleros. El hecho de que numerosas personas de diferentes pueblos y territorios consideren a estas estructuras como caleros, se debe a que algunos de ellos, después de haber sido abandonados en su función de reducción de minerales ferruginosos, fueron reutilizados como caleros. De hecho, hemos encontrado algunos casos de "jentilolak" modificadas para su utilización como caleros en Aia, Gopegi, Irun, Leitza, Urdazubi, Legazpi, etc. Además, también hemos observado acumulaciones de fragmentos de caliza de pequeño tamaño cerca de algunas de ellas.

Entre las características más significativas que permiten diferenciar ambas estructuras se pueden citar las siguientes:

a) Por lo que respecta a la forma y tamaño, los caleros tienen, generalmente, una forma cilíndrica, con un diámetro que varía entre uno y varios metros. Sin embargo, las "haizeolak" son más anchas en el tercio inferior de la estructura. Estos hornos tienen un diámetro máximo de unos tres metros y medio a cuatro, con pequeñas variaciones de

unas a otras, pero se van cerrando hacia arriba, dando una sección longitudinal troncocónica-periforme.

b) Otra diferencia importante estriba en el modo en que están construidos. En la parte externa, ambos están reforzados por una pared de piedra, pero internamente, mientras que los caleros también están hechos de piedra, las "jentilolak" presentan un revestimiento de arcilla y arena fina, y, en algunos casos, fragmentos de arenisca englobados en la arcilla.

c) Cuando se conserva la pared interna del horno de las ferrerías de monte, cosa poco frecuente, se pueden encontrar escorias de hierro impregnando la arcilla, a diferentes alturas, cosa que no ocurre con los caleros.

d) Las entradas al horno, en ambas casos, también permiten establecer diferencias, ya que las de los caleros son más complejas y poseen unos resaltes a ambos lados de la entrada (Fig. 7). Además, la forma de la abertura suele ser diferente, siendo menos apuntada en el caso los caleros.

e) Hay una característica que diferencia claramente los caleros y las jentilolak y es la existencia de un canal, justo debajo de la abertura frontal, en comunicación con el crisol, en el caso de las "jentilolak", algo que no suelen tener los caleros, excepto en los casos que se han construido reutilizando una antigua ferrería.

Por último, otro de los datos que marca claramente las diferencias es la existencia de escorias de hierro típicas en los alrededores de las ferrerías. De todos modos, este es un hecho poco frecuente, ya que sólo hemos encontrado esta asociación en una decena de casos.

Conclusiones

El trabajo desarrollado a lo largo de estos años por diferentes zonas de Vasconia, nos permite afirmar, en contra de lo que se ha venido diciendo, que, a pesar de todas las que se han destruido, todavía quedan gran cantidad de "haizeolak", como testimonio de las que debieron de existir en épocas pasadas. También podemos afirmar que actualmente se están destruyendo a una gran velocidad, como consecuencia, principalmente, de los trabajos de roturación en los montes y de las grandes obras de construcción de infraestructuras.

Los hornos de estas ferrerías llaman la atención por la forma de su estructura en la parte interna, sus dimensiones y, particularmente, por su altura, que llega a alcanzar los cinco metros. Además, tanto la forma como el tamaño difiere muy poco de unas zonas a otras y presentan unas características tan marcadas que permiten diferenciarlos claramente de los caleros. La presencia de escorias de hierro en la pared interna del horno, así como la existencia de un canal, nos suministra una buena información acerca de cual era la función de estas cavidades.

La localización de los "hornos vascos" en zonas de ladera y su cercanía a zonas con agua, se mantiene en todos los casos en los que hemos encontrado estas estructuras. Hay que mencionar también la relación entre estas ferrerías y los topónimos que poseen el vocablo *–ola*, bien sea como prefijo o como sufijo. Por otra parte, la gran abundancia de "haizeolak", en una época anterior al establecimiento de las ferrerías hidráulicas, en aquellas zonas en las que el sustrato está constituido por rocas del Cretácico inferior y, en menor medida, del Paleozoico, nos da una idea de la gran riqueza de mineral de hierro que se encontraría en superficie en los materiales de esos periodos. El mineral de hierro sigue existiendo en abundancia en el País Vasco, actualmente, en zonas más profundas, como lo atestiguan la gran cantidad de fuentes ferruginosas, así como de manantiales sulfurosos que aparecen relacionados con estos materiales."

Por último, teniendo en cuenta el número de ferrerías de monte encontradas en Galdakao, en relación a su riqueza en hierro, así como la gran proliferación de estos hornos en zonas concretas, ricas en hierro, como el barrio de Utzirain (Bedia), al pie del Monte Mandoia; las laderas del Monte Albertia, en Legutiano; el valle de Olaeta, en Aramaio; en las laderas del Macizo de la Peña de Aia, en Irun, etc., nos atrevemos a decir que, en época medieval, pudo haber en Vasconia varios miles de este tipo de instalaciones, elaborando hierro, tanto para el mercado interno como para la exportación a los mercados más importantes de Europa."

Calero de Epuru

Arg: M. Urkiola

"VERBA VOLANT, SCRIPTA MANENT"

Herri euskara eta etnografia elkartzen diren eremua ikertzen dutenentzat, gaur egun, Juan Manuel Etxebarria da Euskal Herriko erreferentzia handienetakoa. Euskal Filologian doktorea da Deustuko Unibertsitatean. Euskaltzaindiako kide ere bada. Gehienbat fonetika gaietan aditua bada ere, etnolinguistikaren alorrean lortu du itzalik handiena.



Arg: Jose Luis Ugarte

BUR.- **Hasteko, Juan Manuel, esaguzu zein izan den zeure akademia ibilbidea**.
J.M.E.- Sei urterekin joan nintzen Zeberioko eskolara. Bederatzi urterekin Donostiako Miraconchako Sagrado Corazón ikastetxean egin nuen kurtso bat eta hurrengo urtean Derioko Seminariora. Hantxe egin nituen Filosofiararteko ikasketak. Gero Magisteritza egin nuen eta berriro Derioko Seminariora, baina irakasle bezala eta hantxe sartu ninduen A. Manterolak, gaur ere jarraitzen dudan On Jose Miguel Barandiaranen Etniker-Bizkaia taldean. Handik gerora, 1977an, Gotzon Garatek Euskal Filologia sortu zuen Deustuko Unibertsitatean eta hantxe lizentziatu nintzen eta irakasle sartu Euskal Filologian.
Jarraian hasi nintzen " *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etnolinguistikoa*" izeneko Doktorego Tesia egiten K.Mitxelenaren zuzendaritzapean.
Harrezkero, Barandiaran eta Mitxelenaren irakatsiak jarraituz, Etnolinguistika bidean daragoiot eta bidebatez, idazle alorrean ere hainbat liburu argitaratu ditut herriko euskera aberatsaren zabalbidean.

BUR.- **Aipa iezaguzu, zein izan den zure bidea herri euskara eta testuen biltzaile moduan**.
J.M.E.- Etniker-Bizkaia taldean sartuz batera biztu zidan argia On J.M.Barandiaranek. Derioko Bibliotekara etortzen zitzaigun hitzaldiak ematera eta halako egun batean, herrian entzundako Anbotoko Señorearen mito bat kontatu nion. Hartara esan zidan: " *Aizu, horrelako mito edo eta esaundak bildu egin behar dituzu, garrantzia handikoak direlako. Gero gure Etniker aldizkarian argitaratu egingo ditugu zabalkundea emateko*".
Halaxe hasi nintzen mito eta esaunda bila, Zeberio neure herrian hasi eta Gorbeia inguruko beste hainbat herritan jarraituz. Gaur ere horrela nabil, nahiz eta berriemaileak urrituz joan bizitzaren legean.

BUR.- **Zeure bibliografian, harridura eta miresmena sortu digun lan bat duzu: "Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak". Nolakoa izan zen liburu hau idazteko prozesua?**
J.M.E.- Lehenengotan, mito, esaunda edo eta antzerakoak bildu ahala, Etniker aldizkarian argitaratzen genituen, baina apurka-apurka liburu bat egiteko beste neukala ikusi nuen eta Labayru Ikastegiak liburu hori prestatzea erabaki zuen. Etniker aldizkarian, Etnotestoa bakarrik argitaratzen genuen baina libururako bertsio bi prestatu nituen, Etnotestoa eta Bertsio Etimologikoa. Gainera gaztelerazko laburpen bat ere jarri genuen Julio Camarena Lauciricak Donostiko EUTGn egindako kongresu batean emandako aholkua jarraituz, Euskal Herritik kanpoko katalogoetan ere sartu ahal izateko. Gero hiztegia ere jarri nion hitz, esamolde, esaera, esaldi etab. hobeto ulertzeko. Indize tematikoa jartzea ere beharrezko ikusi nuen. Sarrera, Deustuko irakasle dugun J.Kaltzakortari eskatu nion. Nire neure sarreran, hainbat ohar jarri nuen, fonetikoak batez ere, irakurketa errazteko. Azkenik, berriemaileen fitxak eta bibliografia.

BUR.- **Liburu hau egin zela ia hamabost urte pasa dira. Gaur egun posible izango al lizateke halakorik egitea Arratia aldean?**
J.M.E.- Bai horixe. Lehengo liburua bezalako edo luzeagoa egiteko beste material daukat bilduta eta bertsio bietan egina. Lehen liburuan, 1995ekoan, 50 berriemaile erabili nituen eta oraingo liburu berrirako, alde batetik, lehengo berriemaileen grabaziotik gauza berriak atera ditut eta bestetik , beste 27 berriemaile berriren mito eta esaundak. Argitaratzekotan gaude baina oraindik ez dugu zehaztu nola. Labayru Ikastegiaren esku dago.

BUR.- **Urte askotan, batean eta bestean egindako grabaketetan, material asko eta asko jaso duzu. Gai hauetaz arrotza denarentzako, zein izaten da material honen erabilgarritasuna?**

J.M.E.- Honelako lan bat, orokorki, alor bitan da erabilgarria, batetik Entografia mailan eta bestetik Hizkuntzalaritzakoan.

Hizkuntza bizitzaren ispilu da eta nire etnotestuetan agertzen dena herriaren bizitza da, hots, sineskeretatik hasi eta eguneroko ekintza konkretuetara heldu arte. Bizikera batzuk zaharkituta geratu dira, baina, gaurra atzoak egiten du, geroa gaurrak egingo duen bezala. Beraz, euskaldun zerk egiten gaituen jakiteko interesgarria da herririk hara biltzea bizitze hori. Baina alor etnografiko hori, euskaraz bildu da euskaraz bizi izan delako gure herria eta euskara hori gure herriak bere urteetako jakintzaren galbahetik eralgi du, guganaino heldu arte euskal kulturaren bidean.

Herri euskara da iturria etorkizuneko euskararentzat, nahiz eta mundu modernoan beste iturri batzuetara jo aberasbidean. Beraz, dagoena ezagutu egin behar da eta gero, gorde beharrekoa, gorde eta erabili. Guk, gaurkook zor diogu etorkizunari aurrekoengandik hartu dugun altxorra.

BUR.- **Zu izatez Zeberioakoa zara, Gorbeia barrenekoa. Gure ingurua ere, Aizkorri azpia, mendi eremua da. Zeure ustez mendi eremu hauek egokiagoak al dira mitologia eta aho-literatura gordetzeko?**

J.M.E.- Baietz uste dut. Mitoak sortzearena argi dago. Gure herri eskolatu gabeak sarritan asmatu egin behar izan ditu bizitzako enigmen erantzunak eta azalpen bat emotean sortu dira mitoak. Gero, luzaroan, ahoz-ahoz eman ditu erantzunok belaunaldiz belaunaldi.

Baina, munduak aurrera egin ahala eta herriak hiritartu, mito eta esaunden mundua atzean garatu da, beste lurralde batzuetan gertatu den bezala, teknozientzia bitarteko dela.

Bide berdinetik ahozko literatura ere. Gaur egun, bizi baino, irakatsi egiten da gehiago eta lehengo belaunaldiz belaunaldiko trasmisioa aldatuz doa, gizartearen aldakortasunarekin batera. Horrexegatik, nire lanak, zulo hori bete nahi du, besterik ez bada, irakurri ahal izateko gure aurrekoen bizimodua.

BUR.- **Herri euskaren kontua ere hor da. Legazpin goierriera da herri hizkera, Zeberion Arratiakoa. Nola bultzatu herri euskara hauek, etorkizunean ere erabiliak izan daitezen?**

J.M.E.- Ez daukat formula magikorik, baina, baibidea zein den ez badakigu, gutxienez jakin dezagun ezbidea, hau da, zer egin bahar ez dugun, eta hori, asko jakitea da.

Herri euskara bultzatzeko, PRESTIGIATU egin behar da herri-hiztuna, balioa eman bere euskarari eta ez epaitu estandarraren legepean. Euskara zertarako da? Euskal munduko bizitzan erabilteko elkar-harremanetan. Euskaldun berria eta alfabetatua hurbildu egin behar da herri hiztunarengana eta ez sortu belaunaldien arteko etenik . Ez jarri euskara bata, bestearen aurka, biak helburu berera adi baino. Nora? Komunikatzeko balio duen euskara aberatsera.

BUR.- **Euskal Herriko ekonomia tradizionala askotan nekazaritza eta artzaintzarekin lotua ikusi izan da. Eskema hori gaindituz, azken hamarkadetan badakigu olagintza ere oso inportantea izan zela, besteak beste, Legazpi eta Arratian. Herri kulturan geratu al da olagintza zahar honen oroimenik?**

J.M.E.- Bai, alde batetik, mitoetan eta bestetik, toponimo zein deituretan. Gainera, ola batzuk errota edo bolu ere bihurtu dira. Beste batzuk errementari ere bai.

Gaur egun, eta erabiltekotan, erakusteko egiten dira errotak eta errementariak. Olak galdu egin dira, baina mito eta esaundetan ez. Hor dago nire liburuan Orozkoko Olarteko olaren mitoa " *Anbotoko Señorea Supelegorren*" (25.5).

BUR.- **Goierri eta Arratiak Arabarekin lotura dute. Zeure ustez, Arabaren faktorea garrantzitsua al da gure eskualdetako (Goierri eta Arratiako) hizkera eta kultura tradizionala ezagutzeko?**

J.M.E.- Arabako kasua berezia da. Leutadan galdu egin zen euskara baina toponimo eta beste hainbat aztarna geratu zaigu eta aztertzea komeniko litzateke. Laudio eta Baranbio aldean ere galdu da herri euskara baina han hor hemen gorde dira euskara mota horren grabaketak. Esaterako, nire hurrengo liburuan, Baranbioko euskara agertuko da, eskuetara etorri zaidalako aspaldian eginiko grabazio bat. Interesgarria benetan. Aramaionan euskara egiten da, gehienbat Bizkaiera, baina Gipuzkoarekin mugan dago. Beraz, badago zer aztertu, euskaldunok zerk lotzen gaituen ikusteko.

BUR.- **Aipatu honako autore hauek esaldi batzuk erabiliz**: **R.M.Azkue.**

J.M.E.- Bere lan eder eta askoren artetik, hiztegi hirukoitza aipatuko nuke. Hiztegi hori egiteko, besteak beste, landa-lana eta asilorik asilo adinekoengandik jasotakoa izan zuen oinarri. Beraz, herririk hara bildu zuen altxorra, guri idatzita iritsi zaigu. Gaur ere bide horretatik gabiltza batean bestean, oraindik badago zer jaso eta.

BUR.- **On Jose Miguel Barandiaran.**

J.M.E.- Maisu eta bidezabaltzaile izan nuen bere biziz Etniker taldean (86 urtetik 102rarte) eta geroan ere, bere proiektuan daragoiot lanean Etno-Linguistika bidean. Eredu paregabea benetan. Bihotzean zeraman Euskal Herria!

BUR.- **J.Caro Baroja.**

J.M.E.- Hau ere ezagutzeko aukera izan nuen Deustuko Unibertsitatera hitzaldiak ematera etortzen zitzaigulako. Jakituna zen eta oso ongi jakin zuen, euskal Etnografia, Historia, Antropologia eta Hizkuntza lotzen. Kultura handiko gizona eta altxor biltzaile aparta!

BUR**.- On Manuel Lecuona.**

J.M.E.- Hau ere ezagutzera heldu nintzen eta batez ere ahozko literaturan egindako bere bilketa lana. Berari

esker, nire bilketa interdisziplinarrean, abestiak ere jasotzen ditut eta horra hor A. Zabalaren Auspoa Bilduman nire "*Zeberioko Kantak"* liburua (259 Zka).

BUR.- **Gotzon Garate.**
J.M.E.- Irakasle eta lagun izan nuen. Euskal Filologia sortu zuen. Berak sartu ninduen irakasle Deustuko Unibertsitatean. Baserrietako euskararekin maiteminduta zegoen. Baserririk baserri ibili zen Euskal Herri osotik herri- euskara jasotzen eta hor dago bere lana, batez ere euskal atsotitzena. Herrian jasotako hitz jatorrak eleberrietan sartzen zituen. Hil aurretxoan, neuri eskatu zidan prestatzen zebilen Esamoldeen lan erraldoia argitaratzeko. Horretan gaude. Euskara bihotzean zeraman eta lau haizeetara aldarrikatu zuen

BUR.- **K.Mitxelena.**
J.M:E.- Etnografian J.M.Barandiaran izan dudan bezala, K.Mitxelena, Hizkuntzalaritzan izan da nire maisua. Doktorego Tesia bere zuzendaritzapean egin nuen. Euskararen Aholku Batzordean, kide izan ginen, eta Orotariko Euskal Hiztegia egitea planteatu zenean galdera hau egin nion: " *Koldo, Azkue eta abarren antzera, literaturaz gain, herri-euskaratik aportaziorik egiteko gogorik baduzu? Bai,- erantzun zidan-, zu ere bazaitut zerrendan zure lurraldeko berriemaile izateko*". Baina, K. Mitxelena joan zitzaigun eta nigana behintzat ez da beste inor etorri partaidetza eske. Dena den, nik jasotzen dudana, idatzi egiten dut lan etnografiko zein literaioetan, latineko esaerari jarraituz: " *verba volant, scripta manent*".

BUR.- **Ba al duzu zerbait gehitzeko aurretik esandakoari?**
J.M.E.- Hitz bi aipatuko nituzke. Bata, URGENTZIA. Euskara idatziak itxaron dezake baina ahozkoak ez. Gure adinekoak, bizitzaren lege naturalean, joan doaz mundu honetatik eta joan baino lehen jasotzen ez duguna, eurekin joango zaigu eta gero berandu izango da. Bestea, ZEHAZTASUNA. Herririk hara jasoten duguna, ahal denik eta zehatzen egin behar dugu, etorkizunerako eredu eta lekuko fidagarria izan dadin.

BUR.- **Badakigu "Txinpartak" aldizkaria ezagutzen duzula. Zein da zeure iritzia aldizkari honi buruz?**
J.M.E.- Eredutzat hartzeko moduko aldizkaria dela esango nuke. Euskal Herriko herri edo lurralde bakoitzak horrelako aldizkari bat kaleratuko balu, Euskal Kulturak asko irabaziko luke, elkar ezagutu eta elkar aberastuz, eta horrela batuago eta euskaldunago egingo genuke gure Euskal Herria.

BUR.- **Eskerrik asko zeure arreta eta hitzengatik**.

Aitor Azpiazu

PUNTUALIZACIONES AL ARTÍCULO "LOS PLAZAOLA DE LEGAZPI"

Con el deseo de que quede constancia en nuestra revista hemos recibido de Juan José Ruíz-Oria las siguientes puntualizaciones al artículo "Los Plazaola de Legazpi (siglos XVI-XVIII)", publicado en el Txinpartak nº13, año 2007:

1.- Se comenta en dos ocasiones que la mujer de Juan de Plazaola, María de Ipeñarrieta, era hija de Cristóbal de Ipeñarrieta. Sin embargo, María era hija del hermano mayor de Cristóbal, Juan de Ipeñarrieta, y de Úrsula Aguirre.

2.- Al final del artículo, en el capítulo referido a la extinción de la familia Plazaola, se dice que Plácido José, último Plazaola en poseer Ubitarte, era hijo de Antonio Plazaola y Magdalena de Vicuña Areizaga. No era hijo, sino nieto de los anteriores. Plácido José era hijo de Ignacio Antonio Plazaola, Abendaño-Estenaga y Luisa Plazaola Plazaola.

3.- Se habla en las notas al pie de Bernardo de Areizaga, como criado de su majestad y suboficial de los Libros de Relaciones. Sin embargo, es más conocido por ser el primer barón de Areizaga y hermano de Felipe de Areizaga, barón del Sacro Imperio Romano y Caballero de la Orden de Santiago.

Arg: M.S.F.

Casa Solar de Ubitarte

INFORME PARA LA RECUPERACIÓN DE OLABERRIA

Año 1628. Documento referente a Olaberria, cuya propietaria era ***"Doña Madalena de Arriarán y Gauna viuda de Joan de Çabaleta, vecina de esta villa... que arrendó a López de Plaçaola y Juan de Herraiçabal la casa y las ferrerías mayor y menor, con todas sus pertenencias... y han de pagar por todo 33 quintales de fierro platina al año".*** (Escr. Vicuña, pág. 159, Leg. 2.193).

Arg: M.S.F.

